



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

2022ko otsaila

UPV/EHUKO ZENBAIT FAKULTATETAN HIZKUNTZEN ERABILERAREN NEURKETA

2021-2022 IKASTURTEA

Emaitzen txostena



Aurkibidea

1	SARRERA	2
2	IKERKETA HELBURUAK	2
2.1	Behatu diren fakultateak	3
3	METODOLOGIA	4
3.1	Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia	4
3.1.1	Landa-lana	4
3.1.2	Elkarrizketa-hizkuntza	5
3.2	UPV/EHUko fakultateetako neurketaren berezitasun metodologikoak	5
3.2.1	Aztergaiak	5
3.2.2	Ibilbideak eta neurraldiak	5
3.2.3	Neurtzaile-bikoteak eta mugikorreko aplikazioa	6
3.2.4	Oharrak	7
3.2.5	Datuen adierazgarritasuna	7
3.3	Fitxa teknikoa: UPV/EHU, 2021-2022	7
3.3.1	Ibilbideak	7
3.3.2	Landa-lana	8
3.3.3	Unibertsoa eta lagina	9
3.4	Laginaren osaera	10
3.4.1	Sexuaren arabeko osaera	10
3.4.2	Jardueraren arabeko osaera	11
4	EMAITZAK	13
4.1	Hizkuntzen erabilera orokorra fakultateetan	13
4.2	Zenbait fakultatetan ibilbide berezituak	14
4.2.1	Gipuzkoako Hezkuntza, Antropologia eta Filosofia Fakultateko ibilbideak (HEFA) 15	
4.2.2	Gipuzkoako Hezkuntza, Antropologia eta Filosofia Fakultateko	16
4.2.3	Psikologia Fakultateko ibilbideak	17
4.2.4	Gipuzkoako campuseko Zuzenbide Fakultateko ibilbideak	18
4.3	Sexuaren arabera	19
4.4	Jardueraren arabera	21
4.5	Solaskide-taldearen osaeraren arabera	23
5	DATU NAGUSIEN LABURPENA	26
	BIBLIOGRAFIA	27

1 SARRERA

UPV/EHUko Unibertsitateko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak zenbait Fakultateetako eremu ez-formaletako hizkuntzen erabilera behatzeko egitasmoa jarri zuen abian 2017-2018 ikasturtean. Ordutik hona, 24 fakultateetako hizkuntza-erabilera behatu du Soziolinguistika Klusterrak; zehazki, 2021-2022 ikasturteko egitasmoan, zortzi fakultateetan egin du datu-bilketa.

Aipatu behar da Euskal Herriko Unibertsitateak ikerketa hau egitea ahalbidetu duela bere finantzazioan lagunduz. Halaber, proiektuak Donostiako Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza ere izan du, aurreko ikasturtean egin bezala.

Ikerketa UPV/EHUK aurrera daraman "Aktibatu" proiektuaren baitan kokatzen da. Azken finean, Unibertsitatean euskararen erabilera sustatzea du helburu nagusi proiektu horrek.

Txosten honetan, 2021-2022ko ikasturtean egindako neurketen emaitzak biltzen dira. Lehenik eta behin, neurketa horien helburuak zehaztu dira; azalpen metodologikoak eskaini dira ondoren, eta 2021-2022ko ikasturtean behatu diren fakultateetako hizkuntza-erabilerari buruzko datu orokorrak aurkeztu dira. Azkenik, datu nagusien laburpena erantsi da.

Kontuan izatekoa da aurten ere, COVID-19 birusaren pandemiak baldintzatutako guneak direla ikerketa honetan behatu diren espazioak, 2020-2021 ikasturtean gertatu bezala. UPV/EHUn aurrez aurreko irakaskuntza lehenetsi du, eta, beraz, behaketa-lanak bideratzeko aukera egon da. Baina, aurreikus daiteke, espazio ez-formal horietan ohikoa baino pertsona gutxiago egoteko joera izatea.

Horren guztiaren ondorioz, erronka izan da hizkuntzen erabileraren neurketak egiteko metodologia fakultateetako egoeretara egokitzea. Izan ere, UPV/EHUko fakultateetan hartutako neurri horiek kontuan hartu behar izan dira, fakultate bakoitzeko ibilbideak eta neurraldiak zehazteko eta datu-bilketa diseinatzeke.

Ez da zalantzan jarri, aurreko ikasturtean bezala, pandemiaren testuinguru honetan ere, UPV/EHUko fakultateetako hizkuntza-erabilera zer-nolakoa izan den jakiteko beharra, eta hasiera-hasieratik egin da ahalegina, UPV/EHUren eta Soziolinguistika Klusterraren artean, neurketa hauek aurrera eramateko.

2 IKERKETA HELBURUAK

Hizkuntzen erabileraren neurketen bidez, UPV/EHUko fakultateetako eremu ez-formaletako euskararen erabilera zenbatekoa den jakin nahi da.

Hain zuzen, ikerketa honen bidez, galdera hauek erantzun nahi dira:

- Zenbat hitz egiten da euskaraz, oro har, fakultateko esparru ez-formaletan?
- Badago alderik euskararen erabilera ez-formalean hizketan ari direnak emakumezkoak edo gizonezkoak izan?

2021-2022 ikasturtea

- ikasleek berdin egiten dute eurak bakarrik osatutako taldeetan daudenean edo irakasleekin ari direnean?
- Eta ez-ikasleek (irakasleek edo beste langileek) berdin egiten dute euren artean hizketan ari direnean edota ikasleekin daudenean?

Horiek horrela, helburu nagusitzat ezarri da eremu informaletako hizkuntza-erabilerari buruzko datua eskuratzea fakultate guztietan.

Nabarmentzekoa da, abiapuntutik bertatik asmoa izan dela 2017-2018 ikasturtean hasitako neurketei aurrerantzean ere jarraipena ematea neurketa berriak eginez. Eta asmo horri erantzunez, 2021-2022ko ikasturtean, fakultate berrietan behaketak egiteaz gain, aurreko ikasturteetan behatutako fakultate batean ere aztergai izatea proposatu zen. Modu horretan, diakronikoki euskararen erabileraren bilakaeraren berri eskuratu nahi izan da, hain zuzen, Gipuzkoako campusean kokatuta dagoen Hezkuntza, Filosofia, eta Antropologia Fakultatean (HEFA), sinkronikoki ezagutza zabaltzen jarraituko dugun aldi berean, fakultate desberdinetan egin diren neurketekin.

2.1 BEHATU DIREN FAKULTATEAK

Ondorengo taulan ikus daiteke, ikasturtez ikasturte, zein fakultatetan egin diren neurketak:

CAMPUSA	2017-2018	2019-2020	2020-2021	2021-2022
Araba	Hezkuntza eta Kiroi Fakultatea	Hezkuntza eta Kiroi Fakultatea	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Arabako atala)	Gasteizko Ingeniaritza Eskola
	Letren Fakultatea	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea		
	Farmazia Fakultatea			
Bizkaia	Hezkuntza eta Kiroi Fakultatea	Hezkuntza eta Kiroi Fakultatea	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	Arte Eder Fakultatea
	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Bilboko Ingeniaritza Eskola	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea
			Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa)	Zuzenbide Fakultatea
Gipuzkoa	Hezkuntza, Filosofia, eta Antropologia Fakultatea	Hezkuntza, Filosofia, eta Antropologia Fakultatea	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako atala)	Hezkuntza, Filosofia, eta Antropologia Fakultatea
	Informatika Fakultatea	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE)	Kimika Fakultatea
			Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	Psikologia Fakultatea
				Zuzenbide Fakultatea

3 METODOLOGIA

Euskararen egoera nolakoa den deskribatzeko garaian, askotan jotzen da iritzia ematera. Baina subjektibotasuna saihesteko, gero eta garrantzitsuagoa da egoeraren berri emango duten datuak eskuartean izatea, balorazioetan objektibotasuna lortzeko. Hala, datu horiek lortzeko, alegia, euskararen presentzia nolakoa den adierazteko, baliagarria da euskararen erabilera zenbatekoa den kuantifikatuko duten neurketak burutzea. Izan ere, soziolinguistika arloko eskarmentuak erakutsi du erabilera dela hizkuntza baten egoeraren adierazle esanguratsua eta fidagarria.

Helburu horrekin sortu zen hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko metodologia, eta Euskal Herriko nahiz herrietako hizkuntzen erabilera kale-neurketak burutzeko erabili ohi da. Kale-neurketaren metodologia "Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko Gida Metodologikoa" (Altuna eta Basurto, 2013) argitalpenean jaso da (<http://www.soziolinguistika.eus/gida>).

Oinarri metodologiko hori baliatuz, hainbat gunetan neurketa bereziak egiten ditu Soziolinguistika Klusterrak, hala nola, haur eta gazteen eskolaz kanpoko jardueretan, lantokietan, ikastetxeetan... Kasu honetan, **UPV/EHUko fakultateetako berezitasunetara egokitu da metodologia**. Hala, ikerketa honetan eskuratzen den informazioa erabilgarri egongo da euskararen erabilera areagotzeko edo bestelako esku-hartzeak antolatzeko.

3.1 EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZA-ERABILERAREN KALE-NEURKETAREN METODOLOGIA

Hizkuntza-erabilera Euskal Herriko Kale-neurketa 1989. urtean egin zen lehen aldiz, eta geroztik zazpi alditan errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an, 2011n, 2016an eta 2021ean. Orotara 500.000 hiztunetik gora behatzen dira kalean hizketan. Gaur-gaurkoz, euskararen egoera zertan den ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia bilakatu dira datu horiek.

Kale-neurketan erabiltzen den teknika **behaketa zuzena** da; hau da, ezer galdetu gabe behatzen den eremuetan hizketan ari den jendeak darabilen hizkuntza jasotzen da. Hala, teknika horren abantaila azpimarragarrienetakoa neurtzaileek hiztunaren jardura naturala jasotzen dutela da, datuen subjektibotasuna saihestuz.

Ikerketa honen eremua, ordea, bestelakoa da: herriko kaleetako hizkuntzen erabilera neurtzea izatetik Unibertsitateko fakultateetako eremu ez-formaletakoa neurtzera igaro baita. Ikerketa-teknika, ordea, ez da aldatu, izan ere, behaketaren bidez aztertu da UPV/EHUko fakultateetan egin daitekeen hizkuntza-erabilera.

3.1.1 Landa-lana

Landa-lana behar bezala egiteko, diseinu teknikoaren fasean beharrezkoa da aurrez bi datu zehaztea: **ibilbidea eta neurraldiak**, hain zuzen ere.

Herriko kaleetako neurketan, alde batetik herriko kalerik jendetsuenak biltzea irizpide nagusizat hartuz (plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, eta abar.) neurtu beharreko kale horiek finkatzen dira eta ibilbidea(k) definitzen d(ir)a. Bestalde, neurketarako egun eta orduak zehaztu behar dira, helburu nagusia herriko

2021-2022 ikasturtea

biztanle guztiak (potentzialki behintzat) neurtzea izanik. Unibertsitateko fakultateetan, ordea, eremu ez-formaletako ibilbideak zehazten dira fakultate bakoitzeko irakasle arduradunarekin batera, ahalik eta pertsona gehien dabilen leku eta orduak zehazteko.

3.1.2 Elkarrizketa-hizkuntza

Oinarrizko behaketa-unitatea taldeko elkarrizketa-hizkuntza da; ez da norbanakoaren hizkuntza neurtzen. Beraz, ezinbestean, bi lagun edo gehiagoren arteko elkarrizketak dira zenbatzen direnak. Dena den, aintzat hartzekoak dira bi ohar hauek:

- Bakarrizketa gisa ere jasotzen dira elkarrizketa mota batzuk: adibidez, mugikorreko elkarrizketak, non hiztun bakarra jasoz biltzen den elkarrizketa telefonoz beste aldera dagoena ez baita ikusten.
- Normalean soilik bat edo bi lagun entzuteko denbora izaten da. Beraz, taldeko elkarrizketa-hizkuntza definitzerakoan, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen dugu kontuan talde osoarentzat.

Azkenik, gerta daiteke pertsona batek hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea bere jardunean. Kasu horietan, hizkuntza nagusia jasotzen da, alegia, gehien erabiltzen duena.

3.2 UPV/EHUko FAKULTATEETAKO NEURKETAREN BEREZITASUN METODOLOGIKOAK

3.2.1 Aztergaiak

Erabileraren datuak hiztunen ezaugarriekin aztertuko dira, alegia, behatutako elkarrizketetan parte hartu dutenak **ikasleak ala ez-ikasleak** diren. Kontuan izan behar da azken kasu horretan irakasleak edo bestelako langileak izan daitezkeela, eremu horietan hizketan ari direnak. Bereizketa hori eginda, euskararen erabilera orokorra zenbatekoa den jakiteaz gain, erabilera horren nolakotasuna zehazteko aukera izango da elkarrizketan parte hartu dutenen giza taldeen arabera.

Jakina, metodologiak bere mugak jartzen ditu galdera horiei erantzuteko orduan, izan ere, ezin da jakin ziurtasun osoarekin behatutako zein den ikaslea eta zein ez. Alegia, behaketaren ezaugarri nagusienetakoa diskrezioa denez, behatuak diren elkarrizketetan parte hartzen dutenak ikasleak edo ez-ikasleak diren erabakitzeo hipotesi-mailan jokatu behar dute behatzaileek. Horrela bada, hipotesi modura planteatu da 30 urte azpiko pertsonak ikasleak izan daitezkeela eta hortik gorakoak ez-ikasleak (irakasleak edo bestelako langileak).

Arrazoi berberetatik, behatzen ari garen espazio publiko horietan dauden pertsonak fakultate horietan ikasten edo lanean ari diren kideak diren jakiterik ere ez dago. Horrela bada, espazio horietan entzuten dena behatu dela esango du ikerketak, eta ez zorrozki bertako ikasle edo langileena.

3.2.2 Ibilbideak eta neurraldiak

Datu-bilketa behar bezala egiteko, diseinu teknikoaren fasean beharrezkoa da aurrez bi datu zehaztea: ibilbideak eta neurraldiak. Hau da, aztergai diren **fakultateetako**

espazio ez-formal nagusiak zeintzuk diren zehaztu da, baita horietan **ahalik eta pertsona gehiagoren jarduera behatzeko moduan egon gaitzkeen egunak eta orduak** ere. Izan ere, helburu nagusizat dugu fakultateko hizkuntza-jarduera ahalik eta zabalena jasotzea, eta beraz, fakultateko kide oro, potentzialki behintzat, behatzeko moduko diseinua osatu da.

Irizpide horiek jarraituz, fakultate bakoitzeko honako gune hauek neurtu dira: sarrera-irteerak, pasabideak, eskailerak, kafetegi ingurua... (fakultatearen tamainaren arabera, behar adina ibilbide marratuz). Era berean, klaseetarako sarrera-irteeren ordutegia hartu izan da kontuan. Hala, **bi astez** egindako behaketetan, **egunero ordubeteko behaketa** egin da ibilbide bakoitzean¹.


Fakultate bakoitzean ikerketaren ardura izango duen irakaslearekin adostu dira horiek guztiak.

3.2.3 Neurtzaile-bikoteak eta mugikorreko aplikazioa

Behaketa lanetan (neurtzaile modura) fakultate horietako **ikasleak** aritu dira. Horretarako, jakina, Soziolinguistika Klusterrak berariazko formazioa eskaini die aurrez.

Datu-bilketa modu egokian egiteko, funtsezkoa da diskrezioa bermatu ahal izatea. Horretarako, bi neurri hauek hartu dira:

- Diseinatutako ibilbide bakoitzean, **neurtzaileak bikoteka** aritu dira datuak biltzen.
- Erabilera-datuak eta aztergaiak jasotzeko, Soziolinguistika Klusterraren **mugikorreko aplikazio informatikoa** erabili da:



Horiek izan dira irizpide orokorrak.

¹ 2020-2021eko ikasturteetan, hiru astez luzatu ziren behaketak.

2021-2022 ikasturtea

3.2.4 Oharrak

Neurtzaileei lagungarri izateko helburuarekin, hona hemen datu-bilketarako eskura izan dituzten ohar-orriak:

The image shows three pages from a document. The left page is titled 'HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA' and contains introductory text and instructions. The middle page is titled 'HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA' and contains a list of 4 instructions for data collection. The right page is titled 'HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA' and contains a data collection table with columns for 'HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA' and 'HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA'.

3.2.5 Datuen adierazgarritasuna

Atal metodologiko hau amaitzeko gogoratu behar da, bestalde, emaitzak aztertzerokoa laginarekin tamaina ere kontuan izan behar dela. Laginak gutxieneko kopuru bat bete behar du aldagai horren eragina aztertu ahal izateko. Izan ere, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan, lagina txikiagoa izango da eta datuek adierazgarritasuna galduko dute. Aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu, orduan eta lagin txikiagoa izango da eta emaitzen irakurketa zaildu egingo da.

Horregatik guztiagatik, jarraipen berezia egin da, fakultatez fakultate, gutxieneko elkarrizketa kopurua behatzeko. Ildo honetan azpimarratu behar da, 2021-2022ko ikasturtean, datu-bilketa errepikatzea erabaki zela Bizkaiko campuseko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean, datu-bilketa arruntean jasotako lagina, txikiagia izan zelako. Horrela, fakultate horretan, 2022ko otsailean bi astez gehiagotan egin zen landa-laneko datu-bilketa.

3.3 FITXA TEKNIKOA: UPV/EHU, 2021-2022

Aurreko puntuetan adierazi dira UPV/EHUko zenbait fakultatetan hizkuntza-erabileraren neurketaren berri emateko prozedura metodologiko guztiak.

3.3.1 Ibilbideak

Arestian aurreratu bezala, ibilbide bakoitzaren nondik norakoa zehazterakoan, fakultateetako espazio ez-formal nagusiak zeintzuk diren definitu dira: sarrera-irteerak, pasabideak, eskailerak, kafetegi ingurua eta abar. Fakultatearen tamainaren arabera, behar adina ibilbide marraztu dira:

2021-2022 ikasturtea

LURRALDEA	FAKULTATEA	IBILBIDEA
Araba	Gasteizko Ingeniaritza Eskola	<i>Fakultateko sarrera-irteerak Gela arteko pasabideak Taberna inguruko ibilbidea eta patioa</i>
Bizkaia	Arte Eder Fakultatea	<i>Eraikin nagusian: Fakultateko sarrera-irteerak Gela arteko pasabideak Patioaren inguruak Bigarren eraikina: Fakultateko sarrera-irteerak Gela arteko pasabideak</i>
	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	<i>Fakultateko sarrera-irteerak Gela arteko pasabideak Solairuetako pasabideak</i>
	Zuzenbide Fakultatea	<i>Fakultateko sarrera-irteerak Gela arteko pasabideak Solairuetako pasabideak</i>
Gipuzkoa	Hezkuntza, Filosofia, eta Antropologia Fakultatea (HEFA)	<i>1 ibilbidea (1 eraikina) Fakultateko sarrera-irteerak Gela arteko pasabideak 2. ibilbidea Taberna inguruak 3. ibilbidea: (2. Eraikina) (Fakultateko sarrera-irteerak Gela arteko pasabideak</i>
	Kimika Fakultatea	<i>Fakultateko sarrera-irteerak Gela arteko pasabideak</i>
	Psikologia Fakultatea	<i>1 ibilbidea Fakultateko sarrera-irteerak Gela arteko pasabideak Solairuetako pasabideak 2 ibilbidea. Gelategiko eraikina</i>
	Zuzenbide Fakultatea	<i>Fakultateko sarrera-irteerak Gela arteko pasabideak Solairuetako pasabideak</i>

3.3.2 Landa-lana

Ibilbideekin batera, neurketa egiteko egunak eta orduak zehaztu dira, betiere ahalik eta pertsona gehienek jarduera behatzeko aukera bermatu nahian. Klaseetako sarrera-irteeren ordutegia kontuan hartuz, **bi astez** egin dira neurketak, eta, **egunero, ordubeteko behaketa** egin da ibilbide bakoitzean.

Landa-lanari dagokionez, datu-bilketa 2021ko urriaren 19tik azaroaren 13ra bitartean egin dugu. Fakultatez fakultate, honako koadro honetan azaltzen diren neurraldiak egin dira (arestian esan bezala, Bizkaiko Lan Harremanetarako Fakultatean bi aste gehiagotan egin da datu-bilketa 2022ko otsailean):

2021-2022 ikasturtea

		EGUNAK ²
ARABA	Gasteizko Ingeniaritza Eskola	Azaroak 10, 11, 15, 16, 17, 18, 22, 23, 24, 25
BIZKAIA	Arte Eder Fakultatea	1. Ibilbidea: Azaroak 2, 3, 4, 8, 9, 10, 11, 15, 16, 17 2. Ibilbidea Azaroak 2, 3, 4, 8, 9, 10, 11, 15, 16, 17 3. Ibilbidea Azaroak 2, 3, 4, 8, 9, 10, 11, 15, 16, 17
	Lan Harremanetarako Fakultatea	Azaroak 4, 5, 8, 9, 10, 11, 12, 15, 16, 17, 22, 23, 24, 25 26 Otsailak (2022) 10, 11, 15, 16, 17, 18, 21, 22, 23
	Zuzenbide Fakultatea	Urriak 27, 28, 29 Azaroak 2, 3, 4, 5, 8, 9, 10, 11, 12, 15
GIPUZKOA	Kimika Fakultatea	Azaroak 2, 3, 4, 5, 9, 22, 23, 24, 25, 29
	Psikologia Fakultatea	Urriak 27, 28, 29, Azaroak 2, 3, 4, 5, 8, 9, 10
	Zuzenbide Fakultatea	Urriak 27, 28, 29 Azaroak 2, 3, 4, 5, 8, 9, 10
	HEFA Fakultatea	1. Ibilbidea: Urriak 27, 28, 29 Azaroak 2, 3, 4, 5, 8, 9, 10 2. Ibilbidea Urriak 27, 28, 29 Azaroak 2, 3, 4, 5, 8, 9, 10 3. Ibilbidea Urriak 27, 28, 29 Azaroak 2, 3, 4, 5, 8, 9, 10

3.3.3 Unibertsoa eta lagina

UNIBERTSOA: UPV/EHUko fakultate horietan entzun daitezkeen elkarrizketetan parte hartzen duten pertsonak.

LAGINA: behaketa egin dugun bitartean, behatu ditugun 6.863 elkarrizketek eta horietan solaskide izan diren 19.678 lagunek osatu dute lagina.

Ondoren ikus daitezke fakultate bakoitzean egindako behaketaren elkarrizketakopuruak eta bertan parte hartu duten solaskideak zenbat izan diren:

Lurraldea	Fakultatea	Elkarrizketak	Lagina (Solaskideak)
ARABA	Gasteizko Ingeniaritza Eskola	796	2.077
BIZKAIA	Arte Eder Fakultatea	1.039	3.078
	Lan Harremanetarako Fakultatea	522	1.531

² Behaketa burututako egunen zerrenda ageri da hemen.

2021-2022 ikasturtea

	Zuzenbide Fakultatea	706	1.938
GIPUZKOA	HEFA Fakultatea	2.168	6.337
	Kimika Fakultatea	421	1.158
	Psikologia Fakultatea	719	2.080
	Zuzenbide Fakultatea	492	1.479
	Guztira	6.863	19.678

3.4 LAGINAREN OSAERA


Garrantzitsua da lagina osatu duten solaskideen ezaugarriak ezagutzea, alegia, UPV/EHUko fakultate horietako eremu ez-formaletan, zein profiletako solaskideek behatu diren zehaztea.

3.4.1 Sexuaren araberako osaera

Fakultate bakoitzean behatu ditugun elkarriketak ezaugarri desberdinetako solaskideek eratu dituzte. Hala, fakultatez fakultate, alde esanguratsuak daude sexuaren araberako banaketan, ondorengo grafiko eta taulan ikus daitekeen bezala.

1. Grafikoa eta taula: LAGINAREN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. UPV/EHUko ZENBAIT FAKULTATE, 2021-2022 (%)

■ Emakumezkoak (Lag.) ■ Gizonezkoak (Lag.)



2021-2022 ikasturtea

LAGINA	Araba	Bizkaia			Gipuzkoak			
	Gasteizko Ingen. Eskola	Arte Eder Fak.	Lan Har. Gizarte Lang. Fak.	Zuz. Fak.	HEFA	Kimika Fak.	Psik. Fak.	Zuz. Fak.
Emak.	31,9	69,8	62,6	61,9	73,8	45,1	76,4	61,2
Giz.	68,1	30,2	37,4	38,1	26,2	54,9	23,6	38,8
Lagina (Abs)	2.077	3.078	1.531	1.938	6.337	1.158	2.080	1.479

Iturria: UPV/EHUko zenbait fakultatean hizkuntzen erabileraren neurketa 2021-2022.

Behatutako fakultate gehienetan emakumezkoen presentzia nabarmen handiagoa izan da behaketak egin diren ibilbideetan. Gipuzkoako campuseko Psikologia Fakultatean eta Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean (HEFA) bereziki handia da emakumezkoen gehiengoa gizonezkoenarekin alderatuta: % 76,4 eta % 73,8 emakumezkoen presentzia hurrenez hurren; gainerako fakultateetan % 60tik gorakoa da emakumezkoen proportzioa.

Joera orokor horretan honako salbuespen hauek badira, ordea: Arabako campuseko Gasteizko Ingeniaritza Eskola eta Gipuzkoako campuseko Kimika fakultatea; horietan, gizonezkoen presentzia nagusia izan da (% 68,1 eta % 54,9, hurrenez hurren).


3.4.2 Jardueraren araberako osaera

Behatu diren elkarrizketetan parte hartu duten solaskideak jardueraren arabera aztertuz gero, ez da alde handirik sumatzen fakultatez fakultate. Guztietan, ikasleen presentzia bereziki handia da ikasle ez direnekin alderatuta, izan ere, % 85etik gorakoa da ikasleen proportzioa, gehienetan, % 90etik gorakoa. Beraz, esan daiteke fakultate guztietako aztertutako elkarrizketetan, ikasleen parte hartze nabarmena egon dela (% 85etik % 96ra bitartekoa), espero izatekoa den moduan, bestaslede.

Komeni da atal metodologikoan aipatutako honako ohar hau gogoratzea, alegia, ikerketa hau behaketa bidez gauzatu denez, ezin dela jakin ziurtasun osoarekin behatutako pertsona ikaslea den ala ez; eta, beraz, neurtzaileek honako hipotesi hau kontuan hartuta jaso dituztela datuak: 30 urte azpiko pertsonak ikasleak dira eta hortik gorakoak ez-ikasleak (irakasleak edo bestelako langileak). Jakina, hipotesi hori kontrastatzeko aukerarik ematen ez duenez metodologiak, akats-tarte hori aintzat hartu behar da.

2021-2022 ikasturtea

2. Grafikoa eta taula. LAGINAREN OSAERA, JARDUERAREN ARABERA. UPV/EHUko ZENBAIT FAKULTATE, 2021-2022 (%)



	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa					
	Gasteizko Ingeniaritza Eskola	Arte Eder Fakultatea	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	Zuzenbide Fakultatea	HEFA	Kimika Fakultatea	Psikologia Fakultatea	Zuzenbide Fakultatea
Ikasleak (%)	86,3	92,4	89,4	87,5	92,9	90,9	96,5	92,3
Abs.	1.792	2.844	1.368	1.696	5.884	1.053	2.008	1.365
Ez-ikasleak (%)	13,7	7,5	10,6	12,5	7,1	9,0	3,5	7,7
Abs.	284	232	163	242	451	104	72	114
Guztira lagina (%)	100,0	99,9	100,0	100,0	100,0	99,9	100,0	100,0
Abs.	2.077	3.078	1.531	1.938	6.337	1.158	2.080	1.479

Iturria: UPV/EHUko zenbait fakultatean hizkuntzen erabileraren neurketa 2021-2022.


Beraz, aipaturiko hipotesi horietan bildutako datuen emaitza izango da ondorengo lerrotan aurkeztuko dena.

4 EMAITZAK

4.1 HIZKUNTZEN ERABILERA OROKORRA FAKULTATEETAN

UPV/EHUko fakultateetan egindako ikerketa honen emaitza nagusia 3. Grafikoan eta taulan ikus daiteke.

3. Grafikoa eta taula. HIZKUNTZEN ERABILERA OROKORRA. UPV/EHUko ZENBAIT FAKULTATE, 2021-2022 (%)



	Araba	Bizkaia			Gipuzkoa			
	Gasteizko Ingeniaritza Eskola	Arte Eder Fak.	Lan Harreman eta Gizarte Lang.Fak.	Zuzenbide Fak.	HEFA	Kimika Fak.	Psikologia Fak.	Zuzenbide Fak.
Euskaraz	6,3	13,5	8,6	17,6	42,0	46,8	30,6	29,1
Gaztelaniaz	92,9	86,3	91,1	82,1	57,7	51,7	69,4	70,5
Beste hizkuntzetan	0,8	0,3	0,3	0,3	0,3	1,5	0	0,4
Guztira	100,0	100,1	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Lagina (Abs.)	2.077	3.078	1.531	1.938	6.337	1.158	2.080	1.479

Iturria: UPV/EHUko zenbait fakultatean hizkuntzen erabilerearen neurketa 2021-2022.

2021-2022 ikasturtea

Ondorengoak dira emaitza 2021-2022ko ikasturtean egindako ikerketan bildutako emaitza nagusiak:

- Gipuzkoako Campuseko fakultateetan jaso dira euskararen erabilerarik altuenak:
 - Kimika Fakultatean % 46,8koa izan da euskararen erabilera eta % 42,0koa Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean (HEFA). Nabarmen baxuagoa behatu da Psikologia Fakultatean (% 30,6) eta Zuzenbide Fakultatean (% 29,1).
- Bizkaiko eta Arabako campusetan euskararen erabilera esanguratsuki baxuago dela baieztatu da. Izan ere, kasu guztietan hamar lagunetatik bik baino gutxiagok parte hartu dute euskarazko elkarrizketetan:
 - Zuzenbide fakultatean % 17,6koa izan da euskararen erabilera, Arte Ederren Fakultatean % 13,5koa eta % 8,6koa Lan Harreman eta Gizarte Langintza fakultatean.
- Arabako campusean kokaturiko Gasteizko Ingeniaritza eskolan % 6,32koa izan da euskarazko elkarrizketetan parte hartu duten solaskideak; fakultate guztietan behatutako erabilera baxuena.

4.2 ZENBAIT FAKULTATETAN IBILBIDE BEREZITUAK

Ikerketa honetan hiru fakultatetan ibilbide desberdinetako azterketa berezituak egiteko aukera izan da, jarduera edo hizkuntzaren arabera ikasketa-eskaintza aintzat hartu baita.

Horrela, Gipuzkoako campusean honako hiru fakultate hauetan egin dira ibilbideen arabera azterketak:


- Hezkuntza, Antropologia eta Filosofia Fakultatean honako hiru ibilbide hauetan:
 - 1. Ibilbidea: I eraikina; Antropologia eta Filosofia ikasketak
 - 2. Ibilbidea: I eraikineko taberna ingurua
 - 3. Ibilbidea: II eraikina; Hezkuntza ikasketak
- Zuzenbide Fakultatea:
 - 1. Ibilbidea: goizeko ordutegia (euskal adarra)
 - 2. Ibilbidea: arratsaldeko ordutegia (gaztelaniazko adarra).
- Psikologia Fakultatea
 - 1. Ibilbidea: eraikin nagusia
 - 2. Ibilbidea: aularioa

4.2.1 Gipuzkoako Hezkuntza, Antropologia eta Filosofia Fakultateko ibilbideak (HEFA)

Arestian esan bezala, Gipuzkoako Hezkuntza, Antropologia eta Filosofia Fakultatean honako hiru ibilbidetan hauetan egin da behaketa: 1. Ibilbidea: I eraikina, 2. Ibilbidea: I eraikinean kokaturiko taberna inguruak, eta 3. Ibilbidea: II eraikina.

Datu-bilketa bereizi horretako emaitzak ondorengo grafiko eta taulan zehaztu dira:

4. Grafikoa eta taula. HIZKUNTZEN ERABILERA OROKORRA. Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea, 2021-2022. Ibilbideak (%)



	HEFA Fakultatea. I Eraikina	HEFA Fakultatea. Taberna ingurua	HEFA Fakultatea. II Eraikina
Euskaraz	36,9	41,3	51,0
Gaztelaniaz	62,8	58,2	49,0
Beste hizkuntzetan	0,3	0,5	0,0
Guztira	100,0	100,0	100,0
Lagina (Abs.)	2.422	2.346	1.569

Iturria: UPV/EHUko zenbait fakultatean hizkuntzen erabilerearen neurketa 2021-2022.

Ikus daitekeenez, HEFAko II. Eraikinean, hots, Hezkuntza ikasketetako gunean jaso dira euskararen erabilerearen datu altuenak. Bertan, solaskideen % 51 parte hartu du euskarazko hizketaldietan. Aldiz, erabilera baxuena I eraikinean behatu da (% 36,9),

2021-2022 ikasturtea


hau da, Antropologia eta Filosofia ikasketetako gunean; euskararen erabileraren tarteko balioa jaso da I eraikineko Taberna inguruko ibilbidean: % 41,3.

4.2.2 Gipuzkoako Hezkuntza, Antropologia eta Filosofia Fakultateko

Fakultateetan hizkuntzen erabileraren behaketa hasi zenetik hiru aldiz aztertu du Soziolinguistika Klusterrak Hezkuntza, Antropologia eta Filosofia Fakultateko hiru ibilbideetako hizkuntzen erabilera (lehen aldiz 2018an, ondoren 2019an eta 2021ean hirugarrena).

Horrela bada, ondorengo grafiko eta taulan behaketa horiek eman duten emaitzari erreparatuz ikus daiteke fakultate horretan euskararen erabilerak izan duen bilakaera 2018tik 2021 bitartean.

5. Grafikoa eta taula. Euskararen erabileraren bilakaera. HEFA 2018, 2019, 2021 (%)



	2018	2019	2021
HEFA Fakultatea, 1. Ibilbidea (I eraikina)	44,9	45,4	36,9
<i>Lagina (Abs.)</i>	809	930	2422
HEFA Fakultatea, 2. Ibilbidea (Taberna ingurua)	78,7	40,9	41,3
<i>Lagina (Abs.)</i>	539	114	2.346
HEFA Fakultatea, 3. Ibilbidea (II eraikina)	57,9	49,8	51,0
<i>Lagina (Abs.)</i>	826	1244	1.569
HEFA (OROKORRA)	58,2	45,6	42,0
<i>Lagina (Abs.)</i>	2.174	3.228	6.337

Iturria: UPV/EHUko zenbait fakultatean hizkuntzen erabileraren neurketa 2021-2022.

Datuek erakusten dutenez, bost urteko tartean, hiru ibilbideetan egin du behera euskararen erabilerak: 1 eraikinean zortzi puntuko jaitsiera (% 44,9tik % 36,9ra),

2021-2022 ikasturtea


nabarmen handiagoa taberna inguruan (% 78,7tik % 41,3ra), eta II eraikinean % 57,9tik % 51,0.

Nolanahi ere, kontuan izan behar da, bi azken horietan 2019tik 2021eko tartean lehendik zetorren beheranzko joerari itzulia eman zaiola, goranzko bidea hartuz. Halere, komeni da puntu eta erdiko igoera hori joera baten ispilutzat hartzea, tartea ez delako oso esanguratsua. Hurrengo neurketek baieztatu beharko lukete goranzko bide hori.

4.2.3 Psikologia Fakultateko ibilbideak

Fakultate honetan bi eraikinetan egin dira behaketak, 1) eraikin nagusian eta 2) aulategian. Jasotako emaitzak ondorengo grafiko eta taulan ikus daitezke.

6. Grafikoa eta taula. Hizkuntzen erabilera Psikologia fakultateko 2 ibilbideetan. 2021-2022ko neurketa (%)



	Psikologia Fakultatea	
	I Eraikina	II Eraikina (aularioa)
Euskaraz	37,9	21,3
Gaztelaniaz	62,1	78,7
Beste hizkuntzetan	0,0	0,0
Guztira	100	100
Lagina (Abs.)	1.160	920


Iturria: UPV/EHUko zenbait fakultatean hizkuntzen erabilerearen neurketa 2021-2022.

Ikus daitekeen bezala, nabarmen handiagoa da Psikologiako Fakultateko eraikin nagusian egiten den euskararen erabilera gelategien eraikinean egiten denarekin alderatuz, bien arteko aldea 18 puntukoa baita: % 37,9 I. Eraikinean, % 21,3 II. Eraikinean.

4.2.4 Gipuzkoako campuseko Zuzenbide Fakultateko ibilbideak

Gipuzkoako Zuzenbide Fakultateko ibilbide berean egin dira bi neurraldiren banaketa, kasu honetan euskarazko eta gaztelaniazko ikasketen eskaintzaren arabera banatuta. Hots, euskarazko eskaintza egiten den ordutegia (goizez) eta gaztelaniazko eskaintza biltzen den ordutegia (arratsaldez) modu bereizian aztertu dira. Ondorengo grafiko eta taulan ikus daitezke emaitzak.

7. Grafikoa eta taula. Hizkuntzen erabilera Bizkaiko campuseko Zuzenbide Fakultateko ibilbideetan. 2021-2022ko neurketa (%)



	Zuzenbide Fakultatea	
	I Ibilbidea (Euskarazko adarra)	II Ibilbidea (Gaztelaniazko adarra)
Euskaraz	44,4	11,6
Gaztelaniaz	55,1	88,1
Beste hizkuntzetan	0,5	0,3
Guztira	100,0	100,0
Lagina (Abs.)	790	689

Iturria: UPV/EHUko zenbait fakultatean hizkuntzen erabilerearen neurketa 2021-2022.

Ikus daitekeen moduan, euskarazko adarra eskaintzen den goizeko neurraldietako ibilbidean eginiko behaketan nabarmen handiagoa da euskararen erabilera gaztelaniazkoan egiten denarekin alderatuta. Horrela, % 44,4koa izan da euskarazko erabilera lehen kasuan eta % 11,6 gaztelaniazko adarra eskaintzen den arratsaldeko ordutegian.


4.3 SEXUAREN ARABERA

Solaskideen sexuari erreparatuz gero, fakultate gehien-gehienetan emakumezkoen euskararen erabilera gizonetzkoena baino altuagoa izan da.

- Alde hori azpimarragarria da Gipuzkoako campuseko Psikologia Fakultatean eta Hezkuntza, Antropologia eta Filosofia Fakultatean; lehenean 16 puntuko aldea behatu da (emakumezkoek % 34,3 gizonetzkoek % 18,49) eta ia 7 puntu aldea bigarrean (emakumezkoek % 43,7 eta gizonetzkoek % 37;).
- Alabaina, joera horren alderantzikoa, alegia, gizonetzkoen euskararen erabilera nabarmen handiagoa, honako beste fakultate hauetan behatu da: Donostiako Kimika Fakultatean (emakumezkoek % 40,0 eta gizonetzkoek % 52,4), Bizkaiko campuseko Arte Eder Fakultatean (emakumezkoek % 12,7 eta % 15,4 gizonetzkoek) eta campus bereko Zuzenbide Fakultatean (emakumezkoek % 15,8, gizonetzkoek % 20,6).

Beraz, kasu honetan, ezin da baieztatu beste urteetan ikusi den bezala, emakumezkoek zertxobait gehiago hitz egiten dutela euskaraz gizonetzkoek baino.

8. Grafikoa eta taula: EUSKARAREN ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. UPV/EHUko ZENBAIT FAKULTATE, 2021-2022 (%)



2021-2022 ikasturtea

		Araba		Arte Eder Fakultatea		Bizkaia		Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea		Zuzenbide Fakultatea	
		Em.	Giz.	Em.	Giz.	Em.	Giz.	Em.	Giz.		
Euskaraz		7,1	5,9	12,7	15,4	9,0	7,9	15,8	20,6		
Gaztelaniaz		92	93,3	87,1	84,4	90,6	92	84	79		
Beste hizkuntzetan		0,9	0,8	0,3	0,2	0,4	0,2	0,3	0,4		
Guztira		100	100	100,1	100	100	100,1	100,1	100		
Lagina		662	1.415	2.147	931	959	572	1.199	739		

		HEFA		Kimika Fakultatea		Psikologia Fakultatea		Zuzenbide Fakultatea	
		Em.	Giz.	Em.	Giz.	Em.	Giz.	Em.	Giz.
Euskaraz		43,7	37,0	40,0	52,4	34,3	18,4	31,5	25,4
Gaztelaniaz		56,1	62,4	58,8	45,9	65,7	81,6	68,4	73,7
Beste hizkuntzetan		0,2	0,6	1,1	1,7	0	0	0,1	0,9
Guztira		100	100	99,9	100	100	100	100	100
Lagina		4.679	1.658	522	636	1.590	490	905	574


Iturria: UPV/EHUko zenbait fakultatean hizkuntzen erabileraren neurketa 2021-2022.

4.4 JARDUERAREN ARABERA

Atal honetan, ikasleek eta ez-ikasleek duten euskararen erabilerearen artean alderik dagoen aztertuko da eta, egotekotan, non nabarmentzen den gehien alde hori.

Metodologiaren atalean esan den bezala, gogoratu behar da neurketa honen ezaugarri nagusia diskrezioa dela, eta, beraz, ezin direla zorrotz kontrolatu bi ezaugarriak: alde batetik, behatuak diren guztiak fakultate horietako ikasle edo ez-ikasleak diren ala ez (bertara beste egitekoren batera etorritakoak izan baitaitezke), eta bestetik, ikasleak edo ez-ikasleak diren. Datu bilketarako, beraz, 30 urte azpiko gazteak hartu dira ikasleztat, eta hortik gorakoak ez-ikasle modura; horiek, jakina, irakasleak, bestelako langileak edo bisitariak izan daitezke (bereizketa hori ere neurtzaileen hipotesiaren arabera sailkatuta).

9. Grafikoa eta taula: EUSKARAREN ERABILERA, JARDUERAREN ARABERA. UPV/EHUko ZENBAIT FAKULTATE, 2021-2022 (%)



2021-2022 ikasturtea

	Araba		Bizkaia					
	Gasteizko Ingeniaritza Eskola		Arte Eder Fak.		Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fak.		Zuzenbide Fak.	
	Ikasle	Ez ikasle	Ikasle	Ez ikasle	Ikasle	Ez ikasle	Ikasle	Ez ikasle
Euskaraz	5,7	9,9	12,6	25,0	7,5	17,8	18,5	11,2
Gaztelaniaz	93,8	87,0	87,2	74,6	92,2	82,2	81,3	87,6
Beste hizkuntzetan	0,4	3,2	0,2	0,4	0,4	0,0	0,2	1,2
Guztira	99,9	100,1	100,0	100,0	100,1	100,0	100,0	100,0
Lagina (Abs.)	1.792	285	2.844	233	1.368	163	1.696	242

	Gipuzkoa							
	HEFA		Kimika Fak.		Psikologia Fak.		Zuzenbide Fak.	
	Ikasle	Ez ikasle	Ikasle	Ez ikasle	Ikasle	Ez ikasle	Ikasle	Ez ikasle
Euskaraz	41,8	44,3	49,1	24,0	30,3	38,9	30,3	14,9
Gaztelaniaz	57,9	55,0	50,0	69,2	69,7	61,1	69,5	81,6
Beste hizkuntzetan	0,3	0,7	0,9	6,7	0,0	0,0	0,1	3,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	99,9	100,0	100,0	99,9	100,0
Lagina (Abs.)	5.884	452	1.053	105	2.008	72	1.365	114

Iturria: UPV/EHUko zenbait fakultatean hizkuntzen erabilerearen neurketa 2021-2022.

Grafikoan ikus daitekeenez, behaketa egin den fakultateetan ez dago homogeneousotasunik ikasleen eta ez-ikasleen euskararen erabilerearen artean. Horrela, hiru fakultateetan ikasleen erabilera altuagoa behatu da ez-ikasleekin alderatuta:

- Gipuzkoako campuseko
 - Kimika fakultatean (ikasleek % 49,2, ez-ikasleek % 24,2)
 - Zuzenbide fakultatean (ikasleek % 30,3, ez-ikasleek % 14,9)
- Bizkaiko campuseko
 - Zuzenbide fakultatean (ikasleek % 18,5, ez-ikasleek % 11,2)

Aldiz, nabarmentzekoa da bost fakultateetan ikasleen euskararen erabilera nabarmen apalagoa izan dela ez-ikasleekin erkatuta:

- Arabako campuseko Gasteizko Ingeniaritza Eskolan (% 5,7 ikasleek, ez-ikasleek % 9,9)
- Bizkaiko campusean kokatutako
 - Arte Eder Fakultatean (ikasleek % 12,6 ez-ikasleek % 25), eta
 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean (% 7,5, ez-ikasleek 17,8)
- Gipuzkoako campuseko
 - Hezkuntza, Antropologia eta Filosofia Fakultatean (ikasleek % 41,8, ez-ikasleek % 44,3)
 - Psikologia Fakultatean (Ikasleek % 30,3, ez-ikasleek % 38,9).


2021-2022 ikasturtea

Nolanahi ere, oso kontuan hartu behar da batzuen eta besteen arteko laginetan izan den aldea. Metodologia atalean aztertu bezala, laginaren pisua oso desberdina da ikasleen eta ez-ikasleen artean fakultate guztietan eta, beraz, ez-ikasleen erabileraren datuak tentuz irakurri beharko lirateke, kasu batzuetan lagina txikiegia izan daitekeela kontuan hartuz.

4.5 SOLASKIDE-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA

Atal honetan aztertuko da ea ikasleek eta ez-ikasleek hizkuntza-hautu berdina egiten duten euren arteko talde homogeneotan hizketan ari direnan edota talde mistoetan hitz egiten ari direnean, ikasleek eta ez-ikasleek osaturiko taldeetan, alegia.

10. Grafikoa eta taula: EUSKARAREN ERABILERA, SOLASKIDE-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. UPV/EHUko ZENBAIT FAKULTATE, 2021-2022 (%)



	Araba		Bizkaia			Gipuzkoa			
	Gasteizko Ingeniaritza Eskola	Arte Eder Fak.	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fak.	Zuzenbide Fak.	HEFA	Kimika Fak.	Psikologia Fak.	Zuzenbide Fak.	
Ikasleak soilik	5,9	10,9	7,3	18,3	41,8	48,4	30,3	30,0	
Lagina	1.754	2.700	1.376	1.621	5.818	1.030	2.003	1.336	
Ez ikasleak soilik	10,9	20,5	17,4	8,9	43,0	18,2	39,7	11,1	
Lagina	257	166	144	203	402	88	68	99	
Ikasleak eta ez-ikasleak	0,0	41,4	14,8	22,8	50,4	71,1	22,2	43,2	
Lagina	65	210	61	114	115	38	9	44	

Iturria: UPV/EHUko zenbait fakultatean hizkuntzen erabileraren neurketa 2021-2022.

2021-2022 ikasturtea

Fakultatez fakultate, ikasleek osatutako taldeetako erabilera bat dator, hein handi batean, euskararen erabilera orokorrarekin. Zentzuzkoa da hori, izan ere, txosten honetako 3.4.2. atalean azaldu moduan, aztergai izan dugun lagina, nagusiki, ikasleek osatu dute.

Honakoak dira aipagarriak diren gertakariak:

- Esan behar da bost fakultatetan ez-ikasleen euskararen erabilera altuagoa izan dela fakultate berean ikasleek duten erabilerarekin alderatuta, baina ez da hala gertatzen gainerako hiruretan. Honako hauek dira irakasleen (ez-ikasleen) erabilera altuagoa den fakultateak:
 - o Arabako campuseko Gasteizko Ingeniaritza Eskolan (% 5,9 ikasleek, ez-ikasleek % 10,9)
 - o Bizkaiko campusean kokatutako
 - Arte Eder Fakultatean (ikasleek % 10,9 ez-ikasleek % 20,5),
 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean (% 7,3, ez-ikasleek 17,4)
 - o Gipuzkoako campuseko
 - Hezkuntza, Antropologia eta Filosofia Fakultatean (ikasleek % 41,8, ez-ikasleek % 43,0)
 - Psikologia Fakultatean (Ikasleek % 30,3, ez-ikasleek % 39,7).
- Interesgarria da aztertzea, era berean, ez-ikasle eta ikaslez osatutako taldeetan nabarmendu diren elkar eraginak, izan ere bost fakultatetan, talde horietan behatu dira euskararen erabilera altuenak. Honakoak dira kasu horiek:
 - o Bizkaiko campuseko
 - Arte Eder Fakultatean: % 41,4koa izan da euskararen erabilera talde mistoetan (% 10,9 ikasleen artean % 20,5 ez-ikasleen artean).
 - Zuzenbide Fakultatean: % 22,8 talde mistoetan (% 8,9 ez-ikasleen artean, % 18,3 ikaslez osatutako taldeetan).
 - o Gipuzkoako campuseko
 - HEFA Fakultatean: % 50,4 talde mistoetan (% 41,8 ikasleen artean, % 43 ez-ikasleen artean)
 - Kimika Fakultatean: % 71,1 talde mistoetan (% 48,4 ikasleen artean, % 18,2 ez-ikasleen artean).
 - Zuzenbide Fakultatean: % 43,2 ikasle ez-ikaslez osatutako taldeetan (% 30 ikasleen artean % 11,1 ez-ikasleen artean).
- Baina bi fakultatetan irakasleek euren arteko elkarrizketetan euskararen erabilera handiagoa da ikasleekin daudenean gertatzen dena baino. Hala gertatzen da Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean (% 17,4 ez-

2021-2022 ikasturtea

ikasleak euren artean % 14,8 ikasleekin harremanetan) eta Gipuzkoako campuseko Psikologia Fakultatean (% 39,7 ez-ikasleak euren artean % 22,2 ikasleekin harremanetan).

Laburbilduz, esan daiteke fakultate gehienetan, ikasle eta ez-ikasleez osatutako taldeetan izan ohi dela euskararen erabilera altueneko egoera. Azpimarratzekoa da honako fenomeno hori (ikasleak ez-ikasleekin (irakasleekin) Euskal Herriko fenomeno ia orokorra dela, izan ere, euskararen erabilera handitu egiten da erabilera formaletik hurbil egotean. Esate baterako ohikoa izaten da haurren presentziak helduengan erabilera areagotzen duen bezala helduen presentziak haurrek euskaraz gehiago egin dezaten ere eragitea (Soziolinguistika Klusterra, 2017).

Horixe ikus daiteke behatutako fakultateetan ere; oro har, euskararen erabilera handitu egiten da ikasleak eta irakasleak elkartzen direnean.

Hala eta guztiz ere, ez-ikasleek soilik osatutako taldeen erabilera-datuak nahiz talde mistoetakoak tentuz irakurtzea komeni da. Izan ere, kasuren batean lagin txikiagia eskuratu izana gerta daiteke.

Ondorioz, fakultateetako eremu informaletako euskararen erabilera solaskide-taldearen osaeraren arabera aztertzen badugu, hiru eredu nagusirekin egiten dugu topo:

- 1.eredua: Erabilera altuena talde mistoetan, ondoren ikasleen arteko erabilera eta azkenik ez-ikasleek osatutako taldeetako erabilera.
 - Bizkaiko campuseko Zuzenbide Fakultatea, Gipuzkoako Kimika Fakultatea eta Zuzenbide Fakultatea
- 2.eredua: Erabilera altuena talde mistoetan, ondoren ez-ikasleen arteko erabilera eta azkenik ikasleek soilik osatutako taldeetako erabilera.
 - Bizkaiko campuseko Arte Ederreko Fakultatea eta Gipuzkoako HEFA
- 3. Eredua: erabilera altuena ez-ikasleena, ondoren ikasleena edo talde mistoetan.
 - Bizkaiko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea eta Gipuzkoako Psikologia Fakultatea.

5 DATU NAGUSIEN LABURPENA

Hona hemen euskararen erabilera-datu nagusien laburpena:

Datu orokorrak

ARABA

- Gasteizko Ingeniaritza Eskola: % 6,3

BIZKAIA

- Arte Eder Fakultatea: % 13,5
- Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea: % 8,6
- Zuzenbide Fakultatea: % 17,6

GIPUZKOA

- Hezkuntza, Filosofia, Antropologia eta Fakultatea: % 42
- Kimika Fakultatea: % 46,8
- Psikologia Fakultatea: % 30,6
- Zuzenbide Fakultatea: % 29,1

GIZON / EMAKUME

EMAKUMEAK, ORO HAR, GEHIAGO

- Gasteizko Ingeniaritza Eskola: (% 7,1 / % 5,9)
- Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea: (% 9,0 / % 7,9)
- Hezkuntza, Filosofia, Antropologia eta Fakultatea: (% 43,7 / % 37,0)
- Psikologia Fakultatea: (% 34,3 / % 18,4)
- Gipuzkoako Zuzenbide Fakultatea (%31,5 / %25,4)

GIZONEK ERABILERA HANDIAGOA:

- Arte Eder Fakultatea (% 15,4 / % 12,7)
- Bizkaiko Zuzenbide Fakultatea (% 20,6 / % 15,8)
- Gipuzkoako Kimika Fakultatea: (% 52,4 / % 40)

IKASLE / EZ- IKASLE

IKASLEAK gehiago

- Bizkaiko Zuzenbide Fakultatean: % 18,5 / % 11,2
- Gipuzkoako Kimika Fakultatean: % 49,1 / % 24)
- Gipuzkoako Zuzenbide Fakultatean: (% 30,3 / 14,9)

IRAKASLEAK gehiago

- Gasteizko Ingeniaritza Eskolan: (% 9,9 / % 5,7)
- Arte Eder Fakultatean: (% 25,0 / % 12,6)
- Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean: (% 17,8 / % 7,5)
- Psikologia Fakultatean: (% 38,9 / 30,3).

BIBLIOGRAFIA

Altuna, O., & Basurto, A. (2013). *Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Soziolinguistika Klusterra. (2017). *Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa: Euskal Herria, 2016*. <http://soziolinguistika.eus/kaleneurketaeh>.

Soziolinguistika Klusterra. (2018). *Euskal Herriko Unibertsitateko zenbait fakultatetan Hizkuntza-Erabileraren Kale-Neurketa, 2018*. Emaizen txostena. Andoain: (Argitaratu gabeko txostena).

Soziolinguistika Klusterra. (2019). *Euskal Herriko Unibertsitateko zenbait fakultatetan egindako Hizkuntza-erabileraren Kale-neurketa (2019)*. Andoain: (Argitaratu gabeko txostena).